BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3591

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 6koa, Energia eta Meategien Zuzendaritzarena; honen bitartez, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA» enpresak hidrokarburoei buruzko ikerketarako eskatutako «SAIA» izeneko baimenaren eskaera argitaratzen da.

Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legearen 3. artikuluak ezartzen duenez, Autonomia Erkidegoei dagokie, lege horretan aurreikusitakoari jarraikiz, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak ematea, baldin eta baimen horiek autonomia-erkidegoen lurralde-eremuari eragiten badiote.

Gainera, Legearen II. Tituluan, hidrokarburo-hobien ikerketarako araubide juridikoa ezartzen da, eta gainera, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenak emateko prozedura xedatzen da. Prozedura horren barnean sartzen da, besteak beste, hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimenen titularrak izateko ezarritako baldintzak betetzen dituzten interesdunek egindako eskaerak BOEn eta EHAAn argitaratu behar direla.

2010eko azaroaren 8an, «Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi SA» enpresak hidrokarburoei buruzko ikerketarako baimena eskatu du, «Saia» izenekoa, honako koordenatu hauek mugatzen dutena, longitudeak Greenwicheko meridianoa erreferentziatzat hartuta kalkulatu direla:

1 zenbakiko espedientea: «SAIA» baimena, 49.752 hektareakoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatua eta honako muga hauek dituena:

Erpina	Latitudea	Longitudea
1	43º 15´00´´	3º 05´00´´
2	43º 15´00´´	2º 45´00´´
3	43º 05´00´´	2º 45´00´´
4	43º 05´00´´	3º 05´00´´

Eta hori guztia jendaurrean jartzen dugu urriaren 7ko 34/1998 Legearen 17. artikuluan ezarritako xedeetarako, hau da, bi hilabeteko epean, ebazpen hau BOEn eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, beren eskubideak kaltetuta atera direla uste dutenek lehiarako eskaintzak edo ebazpenaren aurkako ekimenak aurkezteko aukera izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 6a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
OSKAR ZABALA RABADÁN.